



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 26a

26. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, eskualdeko nahiz landa eremuko osasun-laguntzari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeliakoentzako produktuak merkatzeko neurriak bultza ditzan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aintzat har ditzan neuroendekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonen elkarteen eskariak. Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Nafarroarako osasun-garraioaren eredia aztertzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean patenteak sortzea susta dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du prostituziora bideratutako emakumeen eta hauren trafikorik gabeko hirien sarearekin. Mozioa erretiratzea (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat idatz dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko. Osasun Batzordean izapidetzea (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baititu Saharako herriaren askatasunaren alde eta giza eskubideen defentsan onetsi diren adierazpen instituzional guztiak eta bestelako erabakiak. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Soldata-berdintasunaren Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitio ZF-TRWko plantillari. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitio “Ahora más que nunca, Ongi Etorri” #pasaje seguro #bidesegurua lelopeko manifestazioari. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzuaren kudeaketa-eredua aldatzeko aurreikusitako datari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, 2016-2017 ikasturtean Lanbide Heziketako goi mailako heziketa zikloetan sartzeko sistemari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle-taldeentzako *English Week* murgiltze-programari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Tuterako eta Zangozako osasun-garraioaren SSG enpresa esleipen-hartzailearen gabezia tekniko-
ei eta hark hartutako konpromisoei buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (14. or.).
- Galdera, haur eskolen kudeaketari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua sortzen eta arautzen duen urtarrilaren 30eko 1/2013 Foru Legea betetzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (15. or.).
- Galdera, ikasleak hizkuntzaren arabera bereiztea eskatuz Sarrigurengo eta Noaingo ikastetxe publikoetako guraso-talde batek egindako proposamenari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, udal jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, eremu ez-euskalduneko D ereduari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, osasun-sistema publikoan artatutako ludopatia-kasuei ematen zaien tratamenduari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (17. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Araua, Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi kideak hautatzekoak (19. or.).
- Comptos Ganberako lehendakaria hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea (20. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, eskualdeko nahiz landa eremuko osasun-laguntzari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko jabeldura, eskualdeko nahiz landa eremuko osasun-laguntzari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Egungo Nafarroako Gobernuaren ardatzetako bat da osasun-sistamarako irisgarritasunean ekitatea eta eskubide-berdintasuna sustatzea, programa-akordioko neurrietan jasotzen den moduan.

UPNren gobernuek azken urteotan ezarritako osasun-politikek ekarri dute, gure ustez, osasun-zerbitzuen zentralizazio handiagoa eta, horrenbestez, eskualde-ospitaleak deskapitalizatzeko joera areagotzea. Horren froga dira Iruñera, baita

klinika pribatuetara ere, proba diagnostikoak egiteko xedez egiten diren ehunka deribazioak.

Bestalde, gauza aski jakina da zaila dela landa eremuetan profesionalak kontratatzea. Lehengo gobernuak ezarritako ordezkapen-, guardia- eta mikroguardia-sistemearekin, osasun-laguntza jarraitu eta urgentziazkoan gero eta zailagoa da kalitatezko zerbitzua ematea eta profesionalak fidelizatzea. Ospitale-laguntza espezializatuan, arazo bat da, maila onartezinetara heltzen ari dena, profesionalen eskasia; bereziki, estamentu eta espezialitate jakin batzuetan. Beraz, gobernu honek izan beharreko erronketako bat da erraztea Tuterako eta Lizarrako ospitaleetan postu-betetzea erraztea, eta profesionalen fidelizazioa sustatzea.

Hartara, parlamentari naizen honek jabeldura hau aurkezten diot Nafarroako Gobernuari, eskualde- eta landa-eremuko osasun-laguntzaren arloko politika orokorra dela-eta, osasun-sistema publikoaren irisgarritasunerako ekitatearen ikuspuntutik, bai eta lurralde-orekaren ikuspuntutik ere, honako eremu hauei dagokienez:

1. Oinarrizko osasun-laguntza, laguntza jarraitua eta urgentziazkoa.

2. Estellerriko eta Erriberako herritarrei ematen zaien ospitale-laguntza eta jarduera.

3. Landa eremuetan eta eskualde-ospitaleetan osasun-arloko profesionalak kontratatu, ordezkatu eta fidelizatzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Eleduna: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zeliakoentzako produktuak merkatzeko neurriak bultzatzen.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita zeliakoentzako produktuak merkatzeko neurriak bultzatzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zeliakoentzako produktuak merkatzeko neurriak bultzatzen.

Nafarroan gaur egun 2.200 bat zeliako diagnostikatu daude, eta uste da kopuru hori 6.000raino igotzen dela, oraindik diagnostikorik hartu ez duten gaixoak ere kontuan hartzen badira. Horrek esan nahi du Nafarroako zeliako guztien % 65 inguru diagnostikatu gabe daudela. Hori gerta daiteke sintomarik ez agertzeagatik edo, sintomak izan arren, digestio arlokoak ez izateagatik. Horren ondorioz, diagnostikoa hainbat urtetan atzeratzen da, eta gaixoak mediku askorengana jotzen du, digestio-aparatuko espezialistarengana heldu baino lehen.

Gaixotasun zeliakoa hesteetako gaitz kroniko ohikoena da, glutena jateak eragiten duen eta oinarri immunologikoa duen nahasmendu sistemiko bat dela eta –glutena gariaren, garagarraren, zekalearen eta oloaren aleetan dagoen proteina bat da–, zeinak aurrejoera genetikoa daukaten pertsoneri eragiten baitie.

Kide zeliakoren bat daukaten familiek aparteko kostu bati egin behar diote aurre erosketasaskian, askoz garestiagoak baitira glutenik gabeko produktuak, hau da, zeliakoentzako berariazko produktuak, glutena dutenak baino.

Adibide gisa oinarritzko elikagai batzuk aipa daitezke: ogia, zerealak, galletak, pasta... Izan ere, glutenik gabeko elikagai horien prezioa glutena dutenena baino % 300 inguru garestiagoa da, zenbait kasutan alde hori % 500 baino handiagoa dela.

Prezioen arteko alde nabarmen horren ondorioz, kide zeliakoren bat daukaten familiek kide zeliakorik gabeko familiek baino 1.468,72 € gehiago gastatu behar dute urteko erosketasaskian. Beraz, beharrezkoa da elikagai horiek merkatzeko neurriak gauzatzea.

Halaber, eta oraindik diagnostikatu ez diren zeliako asko daudela kontuan hartuta, funtsezkoa da gaixotasuna diagnostikatzeko laguntzen duten ekintzak sustatzea eta gaitz horri buruzko informazio-kanpainak gauzatzea.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Espainiako Gobernuak premiatu dezan glutenik gabeko elikagaiak merkatzea lortzeko behar diren zerga-neurriak hartzea.

2. Zeliakoentzako berariazko menuak gehitzea susta dezan jatetxeetan eta osasun- zein eskolajantokietan.

3. Kontrol eta ikuskapen handiagoak susta ditzan, araudia betetzen dela bermatzeko.

4. Osasun-langileak gaixotasun zeliakoa diagnostikatzeko hezteko susta dezan.

5. Gaixotasun zeliakoaren mapa epidemiologikoa presta dezan.

6. Nafarroako Zeliakoen Elkarteak babestu dezan, gaixotasuna diagnostikatzeko laguntzeari eta gaixo horiek jaten ahal dituzten elikagaiak normalizatzeari lotutako ekintzak bultzatzeko.

7. Gaixo zeliakoentzako elikagai debekatuen eta onartuen zerrendak etengabe gaurkotzea eta horiek hedatzea susta dezan.

8. Gaixotasun horri buruzko berariazko informazio-kanpainak egin ditzan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da aintzat har ditzan neuroendekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonen elkarteen eskariak.

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEEK ETA NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTE-
EK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-
teek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita aintzat har ditzan neuroendekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonen elkarteen eskariak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeetako eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezteko dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Neuroendekapenezko gaixotasunen ezaugarri komuna haien sintomen mailakako garapena da, nerbio-sistemaren zati baten edo batzuen pixkanakako kaltearen isla dena. Gaixotasun horiek guztiek ezaugarri kliniko komun batzuk dituzte: ezari-ezarian hasten dira, eta haien garapena, aldiz, kronikoa eta mailakakoa da. Ez daukate tratamendu etiologikorik, eta jarduketa terapeutikoak sintomatikoak dira kasu batzuetan, eta aringarriak beti. Esku-hartzearen helburu nagusia mina, ezintasuna, eta bizitza laburtzen duten balizko konplikazioak arintzea da oro har. Mota horretako gaixotasunek pairamen fisiko eta psikiko itzelak sortzen dituzte gaixoen eta haien senideen artean. Gainera, haien ondorio sozioekonomikoak oso garrantzitsuak dira. Izan ere, gaixotasunaren berezko

prozesuari gehitu behar zaizkio eragin psikikoa, bizi-kalitatearen murrizketa, lanerako ezintasuna, trebetasun sozialen galera, pertsona horien zain-tzaileen neke fisikoa eta psikikoa, eta gaixo horien zaintza sozialak eta osasun arlokoak dakarren gastu ekonomiko izugarria.

Neuroendekapenezko gaixotasunen ondoriozko desgaitasuna duten pertsonak ez diote erantzuten beste desgaitasun batzuen ereduari, eta sistemak, haien berriazko beharrezanetara egokitu ez dagoenez, askotan sorrarazten ditu babesgabetasun sozial nabariko egoerak. Gauzak horrela, erabateko babesgabetasuneko egoerak daude, aitorturiko gutxieneko desgaitasun-maila batera iristen ez delako. Balorazio-sistema ez da egokia, ezta sentikorra ere, haien desgaitasunaren errealitatea neurtzeko. Alde horretatik, aitortpena beranduegi gertatu ohi da, ordurako pertsonak nariadura fisiko larria daukanean. Eta errealitatea da zerbitzu eta baliabide espezializatuak eskuratzea oinarritzak dela, gaixotasunaren ondorioak prebenitzeko edo arintzeko eta bai pertsonak bai haien familiak artatzeko. Neuroendekapenezko gaixotasun baten diagnostikoa hartzen duten pertsonen % 33ko desgaitasuna aitortzea, balorazioa zein ere den, lagungarria izanen litzateke baliabideak, zerbitzuak edo prestazioak hobeto eskuratzeko, eta eragotziko luke balizko babesgabetasun egoerak sortzea, gaur egun gertatzen direnak bezalakoak. Horrela, gaixotasun horien bilakaera askotarikoa izatearen ondoriozko espezifikotasuna konpentsatuko litzateke.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du neuroendekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonen elkarteen eskaerak aintzat har ditzan, baremoak berrikusteko eta eguneratzeko prozesuetan gaixotasun horien espezifikotasun guztiak kontuan hartuta, uneoro balorazio-prozesuak ekitatez egin ahal izateko eta endekapen-prozesuaren aurrerapenaren ezaugarriari begiratuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du desgaitasun-maila ebaluatzeko baremoa alda dezan, neuroendeka-

penezko gaixotasunak diagnostikatu ondoren % 33ko desgaitasuna aitortuta, balorazioa bera zein ere den, halako moldez non gaixotasun horien sorrerek eta bilakaerek agertzen duten askotarikotasunaren ondoriozko espezifikotasuna konpentsatuko baita.

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Foru parlamentariak: María Isabel García Malo, Isabel Aramburu Bergua, Asun Fernández de Garaialde, Mikel Buil García, Nuria Medina Santos, Ana Beltrán Villalba eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Nafarroarako osasun-garraioaren eredia aztertzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita lan-mahai bat sor dezan, Nafarroarako osasun-garraioaren eredia aztertzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Nafarroarako osasun-garraioaren eredia serio aztertzeko.

Osasun-garraioa gai klasikoa bihurtu da Parlamentu honetan. Izan ere, asko eta justifikatuak dira langileek, zuzenean horrekin lan egiten duten

O-NOZeko profesionalak eta udalek aurkeztutako kekek. Gaia, konpondu ordez, okertzen ari da, eta okertze horrekin badu zerikusirik Nafarroako Larrialdi Agentzia desagertu izanak.

Osasun garraioaren zerbitzua ezinbesteko zerbitzua da, lehentasunezkoa, osasun arloan. Nafarroako Foru Komunitateak daukan garraio-eredia 90eko hamarkadakoa da, eta behar adinako borondate politikoaz heldu ez zaien hainbat arazo dakartza aspalditik, nahiz eta hainbat lan-mahai sortu izan diren zerbitzu hori hobeto emateari begira.

Uste dugu osasun-garraio horrek ez dituela lortzen kalitate, berehalakotasun, erosotasun eta gogobetetasun helburuak, ez erabiltzaileen alde-tik, ez langileenetik, ez horiek agintzen dituzten medikuen aldetik ere.

Zerbitzu hori itunen ereduaren bidez ematen da. Horrek gastu ekonomiko handia dakar eta ez ditu erdiesten lortu nahi diren eraginkortasun eta efizientzia mailak.

Sozialisten parlamentu-taldearen iritziz, garraio horren baldintzak berrikusi eta bestelako bermeak eskaini beharra dago; horretarako, beharrezko gertatzen da egungo eredia birdefinitzea, garraio zerbitzua bezain garrantzitsua den osasun-zerbitzu bat hobetzeko neurriak hartzea helburu.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lan-mahai bat sor dezan, sindikatatu guztiek, UTESNAK, alderdi politiko guztiek

eta zeresana duten Foru Administrazioiko departamentuetako (Barnea, Osasuna eta Hezkuntza) ordezkariak osatuko dutena eta Nafarroarako osasun-garraioaren eredia seriotasunez aztertuko duena.

Lan-mahai horrek sei hilabeteko iraupena izanen du, eta honako gai hauek landuko ditu, besteak beste:

- Foru araudia Europako UNE EN 1789:2007+A2 araudira egokitzea, uniformetasunari, NBEei eta ibilgailuen ezaugarri tekniko eta ikuskapenei dagokienez.
- Nafarroan osasun-garraio guztia zuzenean eta integralki kudeatuko duen erakunde, agentzia

edo enpresa publiko bat sortzearen bideragarritasuna.

- Zerbitzu-zorroa osorik birdefinitzea.
- Osasun zerbitzu hau emateko kalitate-irizpideak.
- Gaixo infekto-kutsagarriak lekualdatzeko jarduketak eta babes-protokoloak.
- Jarduketa-protokolo bateratuak, batez ere esku-hartzaile asko dituzten egoeretan, biktima asko dituzten gorabeheretan eta arrisku aurreikusgarriko operazioetan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean patenteak sortzea susta dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitatean patenteak sortzea susta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Herrialde edo eskualde batek jakintza ustiatzeko eta hori irabazi ekonomiko bihurrarazteko

daukan gaitasuna neurtzeko adierazle erabilienez, bat jabetza industrial da.

2014an 3.031 patente-eskaera egin ziren estatu osoan. Horietatik 76 Nafarroatik egin ziren, 2010ean erregistratu ziren 124etatik beherakada jarraituan; betiere, Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoko datuen arabera.

Baldin eta jakintzan oinarritzen den ekoizpen-eredu batean benetan sinesten badugu, urgentea da joera hori iraultzea, Nafarroa beti izan baita liderra patente-ekoizpenean biztanleko, gainerako autonomia-erkidegoen aldean. Hori dela eta, ezin da esan lurralde honetan kultura berritzailea denik falta dena.

Mozio honetan asmoa ez da patente-ekoizpenari buruzko estatistikak handitzea bakarrik; asmoa da gizartea, pertsonak eta enpresak, jakintzaren babesaren kulturari irekiak egon daitezten eragitea.

Hortaz, jakintzan oinarritzen den ekoizpen-eredu bateranzko bidearen fase bat den aldetik, egokia da jakintza sortu eta babesten duen kultura hori jaioaraztea, berrikuntzaren zentzua barneratzen lagunduko duena. Laburbilduta, beharrezkoa da berrikuntzarako laguntzak indartzea, enpresaren haziaren beraren aurretik ere, berrikuntzaren kulturaren sortutako enpresak finkatzeko, hain zuzen ere. Halaber, ekintzaile berriak

sustatu behar dira, berrikuntza beren negozioen mamira eramaten dutenak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean patenteen sorrera susta dezan, oinarriak sortuta, beharrezko funtsak emanda eta jarduera ekintzailea babestuta. Jarduera ekintzaile horrek patenteen ekoizpena sustatu, eta horien ekoizleei –Nafarroan egoitza duten pertsona fisikoak zein juridikoak– diru-saria emanen die, horrek ez duelarik esan nahi sortu den patentearen titulartasua

naren gainean inolako eskubiderik sortzen denik. Ildo horretatik, hurrengo ekintzak abiaraziko dira:

1. Patente-ekoizpenerako sari baterako dei egitea.
2. Espainiako eta Europako patenteen ekoizpena sustatzea.
3. Espainiako eta Europako patenteen ekoizpenari buruzko prestakuntza ematea.
4. Lortutako emaitzak jakinaraztea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarearekin.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitzuen prostituziora bideratutako emakume-

en eta haurren trafikorik gabeko hirien sarearekin. Mozioa 2016ko otsailaren 5eko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat idatz dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko.

OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketa plan bat idatz dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako

Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko. Mozioa 2015eko azaroaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baititu Saharako herriaren askatasunaren alde eta giza eskubideen defentsan onetsi diren adierazpen instituzional guztiak eta bestelako erabakiak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten ditu Saharako herriaren askatasunaren alde eta giza eskubideen defentsan onetsi diren adierazpen instituzional guztiak eta bestelako erabakiak, eta Marokoko Erresumak okupatutako lurraldeetan sahararren eskubide zibil eta politikoak erreibindikatzen dituztenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Marokoko agintariak premiatzen ditu bertan behera utz ditzaten Sahara Mendebaldean giza eskubideak defendatzen dituzten ekintzaileen aurkako jazarpenak eta aske utz ditzaten Marokoko eta Mendebaldeko Saharan espetxeetan dauden preso politikoak.

3. Nafarroako Parlamentuak berresten du Saharako herriak autodeterminazio-eskubidea daukala, Nazio Batuen Erakundeak hitzartutako terminoetan.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio dagokion zeregina bere

gain har dezan eta babes dezan, bai bere jardunean, bai Europar Batasunaren esparruan aritzen denean, gatazka konpontzeko prozesua, Nazio Batuen ebazpenekin bat.

5. Nafarroako Parlamentuak berresten du Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoko Gobernu zilegiarekiko errekonozimendua eta Fronte Polisarioko kideekiko babesa –bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko bere ordezkarietara, eta Saharako herriari babesa ematen dioten elkarrekin batera, konpromisoa hartzen du kausa horren aliatu fidela izaten jarraitzekoa.

6. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die herritarrei eta erakundeei Saharako herriari babesa eman diezaioten eta harekin lankidetzan jardun daitezten eremu politikitik eta humanitariorik, eta sala dezaten Saharako herriak bizi duen ahanztura eta babesgabetasun egoera, nazioarteko krisi ekonomikoko egoera honetan areagotu dena.”

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Soldata-berdintasunaren Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Soldata-berdintasunaren Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du soldata-arraila zuzendu dezan, justizia eta ekitate kontua delako, eta exijitzen du emakumeek gizonen baldintza berak izan ditzaten enpleguan. Exijitzen du parekotasuna egon dadin erabakitze-organoetan, “kristalezko sabaia” deitutakoa desager dadin eta, jakina, neurriak presta daitezen familia eta lana bateratzeko,

familia arloko erantzukidetasunerako eta zaintzarako eta amatasun eta aitatasun baimenak parekatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako etorkizuneko Gobernua premiatzen du emakumeen eta gizonen arteko soldata-berdintasunari buruzko lege bat presta dezan, ordainsari-desberdintasuna desagerrarazi eta etxeko eta zaintzako lanetan emakumeek jasaten duten gaitzari amaiera emanen diona.”

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen insituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitio ZF-TRWko plantillari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten dio ZF-TRWko plantillari, egiten dituen lanaldarrikapen zilegi eta bidezkoetan.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela lan-gatazka konpon dadin,

Nafarroako lantegiaren jarraipena nahiz lanpostuen eta lan-baldintza duinen iraupena bermatzeko moduan.

3. Ebazpen hau ZF-TRWko Enpresa Batzordeari eta Zuzendaritzari igorriko zaie.”

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitio “Ahora más que nunca, Ongi Etorri” #pasaje seguro #bidesegurua lelopeko manifestazioari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten dio Iruñeko Udaletxeko plazan otsailaren 27an eginen den manifestazioari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan, pertsonak (errefuxiatuak) ahalik eta eperik laburrenean ekar daitezten Nafarroara.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Espainiako Gobernuaren eraginkortasun eza ikusirik, beste autonomia erkidego batzuetako gobernuekin eta euroeskualdeekin lankidetzan aritzeko bideak jorra ditzan, aipatu lekualdatze horiek lortzeko egokitzat jotzen diren neurri guztiak hartu eta aplikatzeko.”

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzuaren kudeaketa-eredua aldatzeko aurreikusitako datari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzuaren kudeaketa-eredua aldatzeko aurreikusitako datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak zer data aurreikusi du Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzuaren kudeaketa-ereduaren aldaketa aurrera eramateko?

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, 2016-2017 ikasturtean Lanbide Heziketako goi mailako heziketa zikloetan sartzeko sistemari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, 2016-2017 ikasturtean Lanbide Heziketako goi

mailako heziketa zikloetan sartzeko sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-
teko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero
andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafa-
rroako Gobernuak Hezkuntza Batzordean ahoz
erantzun dezan:

Ikusirik ziurgabetasuna dagoela Lanbide Hezi-
ketako erdi mailako heziketa zikloetan titulaturako
ikasleak datorren ikasturtean goi mailako heziketa
zikloetan sartzeko sistemari eta 2016-2017 ikastur-

teko matrikulazio prozesuari dagokienez, honako
galdera hau egiten dugu:

Zer baldintza bete beharko dira 2016-2017
ikasturtean Nafarroako ikastetxeetan Lanbide
Heziketako goi mailako heziketa zikloetan sar-
tzeko? Aurten Lanbide Heziketako goi mailako
zikloan sartzeko prestakuntza ikastaroetan dauden
ikasleak zer egoeratan sartuko dira horretan?

Iruñean, 2016ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle-taldeentzako *English Week* murgiltze-programari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko
otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Ba-
tzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen,
besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De
Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera,
Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle-taldeent-
zako *English Week* murgiltze-programari buruz-
koa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-
teko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero
andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafa-

rroako Gobernuak Hezkuntza Batzordean ahoz
erantzun dezan:

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abendua-
ren 22ko 189/2015 Ebazpenaren bidez onetsi zen
Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzako
English Week murgiltze-programa, zeina 2016ko
otsailetik abendura bitarte eginen baita.

Jarduera horretan ezin dute ikasle guztiek
parte hartu baldintza beretan, eta ikastetxeak
behartzen ditu beren antolamendua eta fun-
tzionamendua aldatzera jarduera horrek dirauen
bitartean, halako moduan non curriculumaren
garapenean eragiten baitu. Hezkuntza Departa-
mentuak bere egiten al du jarduera hori?

Zer arrazoik justifikatzen dituzte beren ikasleek
programan parte hartzea eskatzen duten ikaste-
txeak hautatzeko irizpideak?

Iruñean, 2016ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Tuterako eta Zangozako osasun-garraioaren SSG enpresa esleipen-hartzailearen gabezia teknikoei eta hark hartutako konpromisoei buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Tuterako eta Zangozako osasun-garraioaren SSG enpresa esleipen-hartzailearen gabezia teknikoei eta hark hartutako konpromisoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernandez de Garaialde y Lazkano Sala andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zeintzuk dira Tuterako eta Zangozako osasun-garraioaren SSG enpresa esleipen-hartzailearen gabezia teknikoak?

Gabezia teknikoak izateaz gain, esleipen horren hartzaile izateko hartutako konpromisoak betetzen al ditu? Ezezkoan, zergatik ez da kontratua deuseztatzen?

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala

Galdera, haur eskolen kudeaketari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, haur eskolen kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Hezkuntza Departamentuak bere gain hartuko al du haur eskolen kudeaketa?

Corellan, 2016ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua sortzen eta arautzen duen urtarrilaren 30eko 1/2013 Foru Legea betetzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua sortzen eta arautzen duen urtarrilaren 30eko 1/2013 Foru Legea betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Odol eta Ehun Bankua sortzen eta arautzen duen urtarrilaren 30eko 1/2013 Foru Legean –horren bidez, abenduaren 13ko 20/2010

Foru Legea aldatu zen–, osasungintza publikoari beharrezkoak diren bitarteko guztiak eta behar diren ziurtagiriak emateko konpromisoa jasotzen da, organoak transplantatzeko ebakuntzak egin ahal izateko. Hona, hitzez hitz, testua:

“Bigarren xedapen gehigarria. Osasun publikoa organoen transplanterako egokitzea.

Foru lege hau onetsi eta lau urteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Osasun Departamentuaren bitartez, bere buruari beharrezkoak diren bitarteko guztiak eman behar dizkio, bai eta behar diren ziurtagiriak ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gaitasuna izan dezan organoak transplantatzeko egin beharreko ebakuntza guztiak segurtasun berme guztiekin egiteko”.

Kontuan hartuta foru legeak Nafarroako Gobernuari lau urteko epea ematen diola manu hori betetzeko, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuari:

Aurreko Gobernuak inolako urratsik egin al zuen foru legea betetzeko? Eta oraingo Gobernuak? Edozein kasutan, zer urrats aurreikusten ditu horri dagokionez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, ikasleak hizkuntzaren arabera bereiztea eskatuz Sarrigurengo eta Noingo ikastetxe publikoetako guraso-talde batek egindako proposamenari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, ikasleak hizkuntzaren arabera bereiztea eskatuz Sarrigurengo eta Noingo ikastetxe publikoetako guraso-talde batek egindako proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean ahoz erantzun ditzan.

– Nafarroako Gobernuak nola baloratzen du ikasleak hizkuntzaren arabera bereiztea, Sarrigurengo eta Noingo ikastetxeetako guraso-talde batek proposatu bezala?

– “Herrikoa” ikasleen gurasoen elkarrekin federazioak adierazi bezala, “bizikidetzaren aurkako eraso bat dela ezin uka daitekeela” ulertzen al du?

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, udal jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdiari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, udal jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Aurreikuspenen arabera, noiz argitaratuko du Hezkuntza Departamentuak udal jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdia?

Zein motatako obrak finantzatuko dira?

Corellan, 2016ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, eremu ez-euskalduneko D ereduari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, eremu ez-euskalduneko D ereduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

– Zein kostu aurreikusi da D ereduaren ezarriko eremu ez-euskalduneko ikastetxeetan zabalduko den D ereduaren unitate bakoitzerako?

– Zenbat ikasle eskolatuko dira eremu ez-euskalduneko D ereduaren bizileku duten herria ez den beste batean?

– Zein garraio- eta jantoki-gastu aurreikusi da ikasle horientzat?

Corellan, 2016ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, osasun-sistema publikoan artatutako ludopatia-kasuei ematen zaien tratamenduari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkeztutako galdera, osasun-sistema publikoan artatutako ludopatia-kasuei ematen zaien tratamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Pasa den otsailaren 16an, Aralar Elkarteak, ludopatiaren arloan lan egiten duen eragilea, izan genuen Osasun Batzordean.

Bertan, ludopatia pairatzen duten pertsonekin egiten duten lana eta eskaintzen dituzten tratamendu eta terapiak azaldu zituzten. Ildo horretan, zalantza batzuk sortu zitzaizkigun, hainbat eta hainbat kasu zuzenean Oinarrizko Osasun Laguntzako zerbitzuetatik iristen zaizkiela esan baitzizkiguten, Adimen Osasuneko zerbitzuetik pasatu ere egiten gabe. Adimen Osasunean ludopatia kasu

kopuru oso txikia artatzen omen da, eta beren elkarteak egiten omen du osasungintza publikoak egiten ez duena.

Hartara, jakin nahiko genuke ludopatia pairatzen duten zenbat pertsona artatu diren Adimen Osasunean azkeneko 5 urteetan, eurekin ezartzen

den ibilbide eta protokoloa eta nolako arreta eta tratamendua ematen zaien osasungintza sistema publikoan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Arauk, Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi kideak hautatzekoak.

2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak, 13. eta 15. artikuluetan, Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluaren izaera eta eginkizunak ezarri zituen. Bestalde, kontseilu horren osaera apirilaren 5eko 166/2004 Foru Dekretuan zehaztu da, zeinean kontseilu hori arautzen baita; izan ere, foru dekretu horren 5.3. artikuluan ezarri da kontseiluko bi kide Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak izendatuko dituela, egun Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordea dena.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak, otsailaren 12ko idazki batean, adierazi zuen aipatu kontseilua gaur egun berritze-fasean dagoela.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du aurreikusten aipatu Kontseilurako Legebiltzar honek izendatu beharreko kideak hautatzeko arau berezirik. Hori dela eta, Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikuluari jarraituz, Mahaiak, Eledunen Batzarraren boto loteslearekin bat, aipatu hautaketa arautzen duten arau bereziak onetsi behar ditu.

Horrenbestez, ondokoa ERABAKI DA:

Lehena. Arau hauek onestea, Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi kideak hautatzeko:

1. Parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeko lehendakariari aurkeztuko dizkiote hautagaiak. Ez dute zertan Legebiltzarreko parlamentari izan. Hautagaitzak aurkezteko epea heldu den martxoaren 11ko 12:00etan bukatuko da.

2. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordean eginen da hautaketa, txartel bidezko bozketa isilpekoan.

3. Bi kideak aldi berean hautatuko dira, eta, zenbat ordezkari hautatu behar den, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean batzordekide den foru parlamentari bakoitzak.

4. Boto gehien lortzen dituzten bi hautagaiak izanen dira hautatuak.

5. Postuetakoren batean berdinketa gertatuz gero, berdinketa hautsi arte errepikatuko dira bozketak.

Bigarrena. Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarteen eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Comptos Ganberako lehendakaria hautatzea.

HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Comptos Ganberako lehendakaria izateko hautagaiak aurkezteko epea **2016ko martxoaren 11ko 12:00ak arte** luzatzea.

2. Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarteen eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
